

EUSKAL HERRIKO KIROL MARKAK ETA ERREKORRAK

<https://kiolerrekorrak.eus/>



2022ko kirol errekorrak

2022ko marka berriak

.....

ATLETISMOA

Gizonak

(Estalian)

.....

Donostia, 2022ko abenduaren 21a

ABSOLUTOAK / GIZONAK / Estalian

PROBA	ATLETA	URTEA	KLUBA	MARKA	DATA	LEKUA
60	Valentin Rocandio	1963	ASS	6.73	10.02.89	Donostia
60	Jon Gutierrez	1977	UPV	6.73	16.02.99	Madril
60	Orkatz Beitia	1979	UPV	6.73	20.02.99	Sevilla
200	Orkatz Beitia	1979	UPV	21.39	03.02.02	Donostia
400	Adrian Rocandio	1979	RS	47.20	20.02.21	Madril
800	Victor Rojas	1968	GUIS	1.49.88	16.03.91	Donostia
1.500	Victor Rojas	1968	GUIS	3.39.24	28.02.91	Sevilla
3.000	Victor Rojas	1968	GUIS	7.50.04	01.03.92	Genova
60 hesi	Asier Martinez Etxarte	2000	PAT	7.55	22.02.12	Metz
Altuera	Roberto Cabrejas	1952	TCF	2.24	21.02.82	Oviedo
Pertika	Montxu Miranda	1976	GHA	5.78	98.02.07	Sevilla
Luzera	Jabier San Adrian	1967	RS	7.66	10.02.85	Donostia
Hirukoitza	Luis Felipe Areta	1942	ASS	16.47	10.03.68	Madril
Hirukoitza	Ramon Cid	1954	RS	16.47	06.02.82	Paris
Pisua	Carlos Tobalina	1958	FCB	20.50	05.03.16	Madril
Heptatloia	Pablo Martinez Gereñu	1996	DUR	5.462 puntu	20.02.21	Madril



ALBISTEAK

→ <https://kirolerrekorrak.eus/aritz-gonik-errekora-berria-egin-du-60-metro-hesidunetan/>

Aritz Goñik errekor berria egin du 60 metro hesidunetan

2022.12.26 | [ATLETISMOA](#), [ERREKORRAK](#), [ERRREKOR BERRIA](#), [GIZONAK](#)

Valdizarbe-GANA taldeko atletak, marka 8.08an utzi zuen, Nafarroako Atletismo Federazioak antolatutako kontrol-proban, estalitako moduluan

Aritz Goñi Villar nafarrak Euskal Herriko errekorra hautsi zuen Zizurren, 60 metro hesidunetan proban.

Nafarroako atletismoaren promesa nagusietako bat da Goñi, eta hori baieztatzeko hasiera bikaina eman dio pista estaliko denboraldiari, izan ere, pasa den ostiral arratsaldean, Zizurreko Patxi Morentin moduluan, 16 urtez azpiko 60 metro hesidunetako errekorra ondu zuen.

Goñik, Valdizarbe-GANA taldeko atletak, marka 8.08an utzi zuen, Nafarroako Atletismo Federazioak antolatutako kontrol-proban, estalitako moduluan. Dagoeneko, duela bi aste Donostian, marka bikaina erdietsitakoa zen Goñi, Donostian, 8.29ko denbora egin eta gero.

Azpimarratu beharrekoa da, pasa den martxoaren 26an Euskal Herriko 16 urte arteko errekorra ezarri zuela Goñik pista estaliko luzera jauzian, 7.03 markarekin. Marka hori, Sabadellen burutu ziren pista estaliko Espainiako txapelketan lortu zuen.

→ <https://kirolerrekorrak.eus/1980tik-indarrean-jarraitzen-du-gipuzkoako-16-urtez-azpiko-1-000-metroko-errekora-pista-estalian/>

1980tik indarrean jarraitzen du Gipuzkoako 16 urtez azpiko 1.000 metroko errekorra, pista estalian

2023.01.2 | [ERREKORRAK](#)

Iragan ostiralean Anoetako Belodromoan saiatu ziren 16 urtez azpiko Gipuzkoako errekorra ontzen, 1.000 metrokoa pista estalian, 2:39.8ko denborarekin Manuel Becerrak duena 1980ko martxoaren 8az geroztik

Pasa den ostiralean, abenduak 30, arratsaldeko 17:22an, Anoetako Belodromoan lehiatu ziren parte-hartze libreko probak, non 2007an eta 2008an jaiotako 14 atletek irteera hartu zuten, eraztun obalatuari 5 buelta emateko, 1.000 metro bete arte. Horien artean, Txindokiko bi atleta aritu ziren, Urko Etxebeste eta Haitz Urrestarazu, helburu argi bat zutenak: 16 urtez azpiko Gipuzkoako errekorra ontzea, 1.000 metrokoa pista estalian, 2:39.8ko denborarekin Manuel Becerrak duena 1980ko martxoaren 8az geroztik.

Irteera eman bezain laster, biak jarri ziren buruan, baina lasterketa 100 metrora baino ez zen iritsi, izan ere, epaileek hainbat tiro jo zituzten irteera bertan behera utziz.

Bi edo hiru minutu geroago, beste irteera bat eman zen baina honakoan lasterketaren gidoia aldatu egin zen. Torrelavega atletismoko bi atletak buruan jarri ziren, 200 metrotik 32 segundotan pasatuz, helburutik gertu. Gero, lasterketak gorabeherak izan zituen eta itzuli baten faltan errekorra urrutiegi zirudien.

Azkenean, Aaron Ceballos kantabriarrak (2: 42.57) erdietsi zuen garaipena, Haitz Urrestarazuren erasoak ekidituz (2: 42.72).

Mila metroetan beraz, Haitz Urrestarazuk 2.42.72ko denborarekin pista estaliko marka pertsonala ezarri zuen, eta Txindoki klubeko 16 urtez azpikoen errekorra egin zuen ere, baina duela lau hamarkadako errekorra bere horretan dirau oraindik ere.

SAILKAPENA

- 1 Aaron Ceballos Mateu (15/12/07) Atletismo Torrelavega 2:42.57
- 2 Haitz Urrestarazu Larrea (21/01/07) Txindoki A.T. 2:42.72
- 3 Oscar Crespo Gutierrez (1/3/07) Atletismo Torrelavega 2:43.88
- 4 Urko Etxebeste Garin (28/11/07) Txindoki A.T. 2:44.26
- 5 Hugo Vazquez López (29/5/08) Super Amara BAT 2:45.94
- 6 Miguel Gallastegi Martinez (18/6/08) C.A. Beronia-Senda 2:46.62
- 7 Alai Cabello Viña (23/1/08) Super Amara BAT 2:47.39
- 8 Samuel Fernandez Villegas (23/2/07) 2:50.23
- 9 Lur Ocon Arreitunandia (14/5/08) C.D.Hernani 2:51.71
- 10 Miguel Cantarero Barreda (30/3/08) Atletismo Torrelavega 2:52.09

→ <https://kirolerrekorrak.eus/estanis-ruizek-23-urtez-azpikoen-5000-metroko-errekorra-ezarri-du-pista-estalian/>

Estanis Ruizek 23 urtez azpikoen 5000 metroko errekorra ezarri du pista estalian

2022.12.8 | [ATLETISMOA](#), [EHKM](#), [ERREKORRAK](#), [GIZONAK](#)

Estanisek, iragan larunbatean, abenduak 3, erdietsi zuen aipatu marka, 2022 Boston University Sharon Colyear Danville Season Opener txapelketan: 14 minutu eta 4.14 segundo

Pasa den asteburuan Bostonen (AEB) lehiaturiko txapelketan, Estanis Ruiz nafarrak Euskal Herriko errekorra hautsi zuen, 23 urtez azpikoen kategorian, 5000 metroan pista estalian: 14 minutu eta 4.14 segundo. Estanisek, iragan larunbatean, abenduak 3, erdietsi zuen aipatu marka, 2022 Boston University Sharon Colyear Danville Season Opener txapelketan, hain zuzen ere.

Estanislao Nicolas Ruiz-Ullate, 2000. urteko urriaren 2an jaioa, Ignacio Santamariaren ikaslea Grupompleo Pamplona Atleticon, Loyola Marymount-eko unibertsitatean ikasten ari da, Los Angelesen, eta bere prestazioak modu ikusgarrian hobetu ditu Amerikako Estatu Batuetan dagoenetik. 800, 1.500, 3.000, 3.000 oztopo eta 5.000 metroko iraupen-probetan aritzen da.

Esaterako, aurtengo ekainaren 8an, Amerikako Estatu Batuetan, Eugenen (Oregon) zehazki, lehiaturiko The NCAA Outdoor Track & Field Championships izeneko txapelketan, 23 urtez azpiko Euskal Herriko errekorra hautsi zuen Ruizek 3000 metro oztopodunak proban, finalurrekoan 8'29"12ko denbora eginda. Pamplona Atletiko klubeko korrikalariak bere seriean bosgarren amaitu zuen, finalerdietako seigarren denborarik onena lortuz, hartara finalean aritzeko eskubidea ere bereganatu zuelarik.

Ordura arteko 23 urtez azpiko Euskal Herriko errekorra 3.000 metro oztopodunak lasterketan, Jon Azkuetak zuen, 8.30.41ko markarekin, A Coruñan lorturikoa 1988. urteko abuztuaren 4an.

→ <https://kirolerrekorrak.eus/aritz-goni-16-urte-arteko-errekorra-pista-estaliko-luzera-jauzian/>

Aritz Goñi, 16 urte arteko errekorra pista estaliko luzera jauzian

2022.04.5 | [ATLETISMOA](#), [ERREKORRAK](#), [ERRREKOR BERRIA](#), [GIZONAK](#)

Aritz Goñi Villar (2007) gazte nafarrak Euskal Herriko 16 urte arteko errekorra ezarri du pista estaliko luzera jauzian, 7.03 markarekin.

Aritz Goñi Villar (2007) gazte nafarrak Euskal Herriko 16 urte arteko errekorra ezarri du pista estaliko luzera jauzian, 7.03 markarekin.

Nafarroako Atletismo Taldean (Valdizarbe-GANA) dihardu Aritz Goñik. Martxoaren 26an egin zuen marka hori, Sabadellen burutu ziren pista estaliko Espainiako txapelketan. Espainiako errekorra ere bada, eta azpimarratzekoa Goñik 15 urte besterik ez duela.

Bereziki luzera jauzian nabarmentzen bada ere, Aritz Goñi 60 m eta 60 m hesietan probetan ere lehiatzen da.